

ek!

eta kitto!
euskaraz elkartea

2022ko urriak 14 • 1243 zenbakia

BERBETAN HARTU, EMAN, ERAGIN



Toribio Etxebarria, 1



EUKI

inmobiliariak

20 urtetik gorako esperientzia
eskaintzen dizuegu
balorazioetan eta eraikinetako
salerosketa, alokairu eta
traspasorako bitartekotzan



bisitatu gure eskaintzak web-ean
www.euki.com

GALDETU: 943 20 03 58 / fincas@euki.com





osasun gida

Dentistak

arat.
HORTZ KLINIKAK

ZURE IRIBARRE ONENA



Toribio Etxeberria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 807
www.arat.klinika.com

IRAZABAL
clínica dental

**Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK**

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnos. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Fisioterapeutak

ANE MENDIA
779 Kalgaitza etxea

- FISIOTERAPIA
- KIBUE, LENTOKIA
- Puzkari eta TESTURUNDIAK
- K-terapia + FISIOTERAPIA

FISIOTERAPIA ZENTRUA

Aldaxketa, 20
Tfn. 943 63 66 42
ane.mendia@hotmail.com

EIBAR HORTZ KLINIKAK
CLÍNICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
815.12.18

San Agustín Kalea, 4 beheko ezkerrean
20600 Eibar (Dipukoak)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com

MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN
ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidobarrieta, 7-1. esk. 843-702888

Ginekologia

Dra. Laura Martínez  **Dr. Alejandro Recas**

GINECOLOGÍA EIBAR

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

Unzaga Plaza
Hortz Klinika - Clínica Dental

Maite Orozco Ventura

Unzaga Plaza, 5 - 4. ezkerrean Tel. 943 70 23 85

Pedro Etxeberria Gisasola DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnos: 943 20 72 17

GASTESI
Hortz-Klinika

Errebal, 9-1. C
943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentzioak / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



Iberdrola Ligako Eibar Rugby Taldeak ezin izan zuen garaipena lortu etxean jokaturako lehenengo partiduan, Sevillako Corteva Cocos talde indartsuak 12-45 irabazi baitzion asteburuan



Biolurrek, Debemenek eta Eibarko Udalak antolatuta, Untzagan egindako Eibarko Azoka Ekologikoa. Bertan parte hartzen inguruko ekoizleak egon ziren, ekologikoak ekoiztutako era guztietako produktuekin. Horrekin batera, erakustaldia eta EKOdastaketa egon ziren Osoa Cooking eta Eibarko Iturrua Goikoa baserriko abeltzainen eskutik eta haragi ekologikoarekin errezeta prestatu zuten.



@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILERA

...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA

943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

NORMALIZAZIOA

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILERA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzekeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Astean esanak



Diruarekin obsesionatu samar gaude. Prezioen gorakada hemendik eta inflazioa handik, ekonomiaren hodei beltz horien mehatxupean beti. Eguzki plakak jartzea, gas konpainiak aldatzea eta energiak une oro zenbat balio duen jakiteko App horietako bat jartzea baino aholku hobea da mendira joatea eta bertako landare zein jakiekin solasaldiren bat izatea. Padel pista bat dagoen tokiro baratza bat landatu eta milioi eurotik gorako etxe bakoitzeko oillotegei bat jarritz gero, gure problemak dezente txikituko genituzke.

GAIZKA LASA, zutabegilea

Zuzenekoetan gitarrarik gabe arituko naiz hemendik aurrera. Nire ardurak bakarrik kantatzea izatea nahi nuelako, errazago mugitzeko. Askotan esan badut ere pribilegiatua nintzela nahi nuena egiten nuelako, uste dut oso ahaztuak sentitzen garela oro har. Eta ez dauka aldatzeko itxura handirik. Bitartean, batzuetan konpentsatzen dizu, eta besteetan ez. Egoera oso-oso prekariora da. Amorrurik handien ematen duena da batzuetan baliabide falta dugula egunerokoa ganoraz egiteko. Langile bat gehiago naizela ikusiko balitz, ez genituzke izango ditugun zailtasunak.

MIREN NARBAIZA, musikaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OKER EGON → Zerbaiten gainean iritzi okerra izatea. “Hi, oker hago, funanbulua ez dok lo dagoela ohetik jaiki eta hortik zihar ibiltzen dana”.

OKER IBILLI. → Oker egon. “Kartiak ziñuana ikusirik, pentsatzen jarri zan benetan oker ez ete ebillen”.



Idurre Iriondo

Farmaziak

BARIXAKUA 14
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
ZAPATUA 15
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
DOMEKA 16
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
ASTELEHENA 17
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
MARTITZENA 18
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
EGUAZTENA 19
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
EGUENA 20
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
BARIXAKUA 21
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
GAUEZ BETI, 2022an, Mendinueta (Urkizu, 6)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- Lidia Bustinduy Garate. 97 urte. 2022-10-04.
- Venerando Outumuro Malvesado. 64 urte. 2022-10-06.
- Angel Domingo Crespo. 74 urte. 2022-10-07.
- Juan Jose Malvar Grande. 77 urte. 2022-10-07.
- Arantza Basauri Barrena. 91 urte. 2022-10-08.
- Maria Asuncion Penedo Darriba. 82 urte. 2022-10-09.
- Sara Prieto Ibañez. 99 urte. 2022-10-11.
- Pilar Lopez Saiz. 103 urte. 2022-10-11.
- Felisa Solozabal Arriaga. 99 urte. 2022-10-12.
- Felisa Lopez Ruiz. 85 urte. 2022-10-12.



Sasoi batean Eibarko tailer gehienetan egunero erabiltzen ziren erremintak kostata aurkitzen dira gaur egun. SILBIA

Armagintzari lotutako lanbide zaharrentzat bada etorkizunik

Eibarko ondare industrialia eta gure herrian horren garrantzitsuak izan diren armagile, grabatzaile eta damaskinatzaile bezalako lanbideak berreskuratzeko asmoa duen Armaginak elkartearen eskutik, Grabatu eta Damaskinatze Tailerra abiatu berri da Armeria Eskolak lagatako gela batean. Klaseak orain dela bi aste hasi baziren ere, martitzenean aurkeztu zuten ofizialki tailer berria.

Bi taldetan banatu dituzten 20 ikaslerekin hasi du bidea Grabatu eta Damaskinatze Tailer sortu berriak, aurkezpen ekitaldian Jon Iraola alkateak, Imanol Urreisti Armeria Eskolako zuzendariak, Gorka Garate tailerreko koordinatzaileak eta Juan Luis Baroja Collet tailerra ematen duten irakasleetako batek esandakoaren arabera.

Armagin, grabatzaile, damaskinatzaile eta Eibarko ondare indus-

Bi txandatan banatu dituzten 20 ikaslerekin hasi da Grabatu eta Damaskinatze Tailerra

triala berreskuratzeko Armagiñak elkartearen eskutik ipini dute martxan tailerra eta elkarteak Eibarko Udalaren 18.000 euroko laguntza jaso du horretarako.

Azaldutakoaren arabera, klaseak astean behin, martitzenetan, izango dira: izena eman duten ikasleetako sei goizez aritzen dira eta beste 14 ikasleak, berriz, arratsaldez. Irakasleak, berriz, grabatzaile zein damaskinatzaile lanetan aritutakoak izango dira: María Asun Nogués damaskinatzailearekin ofizioa ikasten ari den Gorka Garate eta hainbat arma-enpresatako grabatzaile izandako Armando Madinabeitia. Aipatutako bi hauekin batera Juan Luis Baroja Collet Debako Arte Eskolako irakasle erretiratuak ere hartuko du parte, “Eibarri ospea eta aberastasuna eman zion arteari buruzko bere ezagutzak eskaintzeko”.

Teknika ez desagertzeko

Alkatearen berbetan, “Armagiñak elkarteak bai Alkatetzari bai Ego Ibarra batzordeari ikastaro hau martxan jartzea proposatu zigunean, ez genuen zalantzarik izan ekimenarekin elkarlanean aritzeko eta ekonomikoki laguntzeko, gauzatu ahal izan zedin eta ikasleak erakarri ahal izateko. Bestela, ziur aski, joan den mendeko azken damaskinatzaile profesionalekin teknika hau desagertu egingo zen eta”. Era berean, eskerrak eman zizkien elkarteari eta irakasleei, “grabatuak eta damaskinatuak oraina eta etorkizuna izan dezaten egin duten lanagatik”. Halaber, eskerrak eman zizkien ikasleei, “industriari eta gizarteari horrelako pieza enblematikoak izaten jarraitzeko aukera eskaintzeko interesa izateagatik”. Gogora ekarri zuten, orain dela 40 urte martxan egon zen Grabatu eta Damaskinatze Eskola ere Armeria Eskolak hartu zuen.



San Andres parrokiako organoaren zaharberritzea ezagutzeko erakusketa

Aurreko zapatuan inauguratu zuten Eibarko Armagintzaren Museoan "Eibar Organoz Blai!", San Andres Elizako Hans Melcher organoaren zaharberritzeari buruzko erakusketa. Abenduaren 11ra arte egongo da ikustera joateko moduan eta sarrera doan da. Horrekin batera, urriaren 27an, 18:00etan, bisita gidatua eskainiko dute erakusketan. Eta San Andres parrokiako organoa ikusteko bisita ere egingo

da, urriaren 24an, 17:30ean. Bisita egiteko ezinbestekoa da aurretik izena ematea, 943708446 telefonora deituta edo museoa@eibar.eus helbidera idatzita.

Bideoa ikusgai gure YouTube kanalean:



Administrazio elektronikoa trebatzeko tailerrak atzerritarrentzat

Udaleko Kultur Aniztasun eta Immigrazio atalاک atzerritarrei zuzendutako gaitasun digitalei buruzko prestakuntza tailerrak antolatu ditu azaroaren 7, 14 eta 28rako. Eibarko KZ Gunean izango dira saioak, 18:00etatik 20:00etara, SOS Arrazakeria Gipuzkoaren eskutik. Aurretiko izena emateko epea zabalik dago (urriaren 28ra arte), Udalaren webgunean.



AUTUAN

72 URTE DITUZTENEN JAIA

1950ean jaiotakoek azaroaren 13an ospatuko dute beraien jai. Untzagan elkartuko dira, 13:00etan, zapiak banatu eta argazkia egiteko. Piskolabisa Kontent tabernan izango da eta bazkaria Unzaga Plaza hotelean. 80 euro sartu beharko dira Santander bankuko ES81 0049 0706 38 2012113753 kontu zenbakian (azken eguna urriak 31), izen-abizenak argi azalduta.

1981ean JAIOTAKOEN JAIA

Azaroaren 19an ospatuko dute beraien jai aurtan 41 urte betetzen dituztenek eta, parte hartu nahi duenak, 75 euro sartu beharko ditu Nafarroako Rural Kutxan, ES66 3008 0171 6547 6995 6022 kontu zenbakian (epea azaroaren 1ean amaituko da).

1977an JAIOTAKOEN JAIA

Azaroaren 5ean urte horretan jaiotakoek 12:30ean Untzagan batu, argazkia atera eta pintxo-potea egingo dute. Bazkaria 15:00etan izango da eta, ondoren, dantzaldia egongo da, DJ batekin. Arratsaldean kalean jarraituko du jaiak. Joan nahi duenak 75 euro sartu beharko ditu Laboral Kutxako ES39 3035 0023 97 0231165572 kontuan, izen-abizenak jarrita, urriaren 31 baino lehen.

1982koen KINTADA

Azaroaren 26an ospatuko dute 40 urte dituztenek kinto eguna: 12:00etan elkartuko dira Kalaka tabernan, 13:00etan Ongi Etorrin pintxo-potea egin eta lpur sagardotegian bazkalduko dute, 15:00etan (alergikorik egonez gero, jarri kontaktuan 664607440). 19:30ean Kasinon batuko dira. Izena emateko 85 euro sartu behar dira, izen abizenak jarritik, kontu korronte honetan: ES3730350023970231165608 (azken eguna azaroaren 18a izango da).

Bizilagunak bazkarietan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago



Aurten berriz ere egingo dira Bizilagunak bazkariak Eibarren. Azaroaren 20an izango dira, Udalak eta ...eta kitto! Euskara Elkartek elkarlanean antolatuta. SOS Arrazakeriaren ekimenak “Elkar ezagutzearen onena” goiburuari jarraituko dio.

Helburua gure bizikideen artean errealitate multikultural/interkultural batean sareak eraikitzea da, aurreiritziak albo batera lagata. Proiektuaren arduradunek diotenez, “horretarako, bi familia elkartzen dira bazkari baten bueltan,

bata autoktonoa eta bestea errefuxiatu edo migrantea direlarik. Elkartze hau dinamizatzaile baten laguntzarekin gertatzen da. Diotenez, inguruzten gaituzten pertsonak, kulturak eta errealitateak ezagutzeko prest egotea nahikoa da Bizilagunak proiektuan parte hartzeko, dinamizatzaile, gonbidatu zein gonbidatzaile moduan”.

Bizilagunak bazkarietan izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko immigrazioa@eibar.eus / ongiotorri@etakitto.eus helbideetara idatzi daiteke.

Eibarko Jardunaldi Mikologikoak egingo dira urriaren 21etik 23ra

Klub Deportiboko mendi taldeak antolatuta, datorren asteko barixakutik domekara arte gure herriko Jardunaldi Mikologikoan 22. edizioa egingo da. Barixakuan (urriak 21) Aranzadi Zientzia elkarteke Antton Melendezek hitzaldia emango du, 19:00etatik aurrera, Klub Deportiboan. Zapatuan (urriak 22) perretxikoak biltzeko

irteera egingo da, haur eta gurasoekin, goizeko 08:15ean Ego-Gainetik autobusa irtenda. Egun osoko jarduna izango da, Aranzadi Zientzia Elkarteke kideekin bildutako perretxikoak sailkatuko baitituzte arratsaldean. Eta domekan (urriak 23), perretxiko erakusketa eta dastatzea egingo da Toribio Etxebarria kalean.



Unai Garinek eraman du Sagardo Egunean zozketatutako saria

Unai Garin Lopezek eraman du Sagardo Egunean ...eta kitto! Euskara Elkartek zozketatutako saria, berak erosi baitzuen 01680 ordezko zenbaki saritua. Irabazleak Bilbon luxuzko asteburu-pasa (urriaren 22 eta 23rako) egingo du, Industrias Pampok babestutako sariari esker. Martitzenean etorri zen sari bila eta Ekaitz Juaristi euskara elkarteke presidentearen eskutik jaso zuen. Zorionak!



Jaso dute Instagram lehiaketako saria

Sagardo Egunean egindako argazki lehiaketako saria Eneritz Gisasolak eta lagunek Instagramen partekatutako argazkiarentzat izan da eta aste honetan etorri da sari bila ...eta kitto! Euskara Elkartera. Eneritzek pozarren hartu zituen 13 sagardo botilak, lagunekin hurrengo bazkaria egiten dutenean edateko. Zorionak eta on egin!



Kurtso berria hasi dute Ikasten elkarteak eta Esperientzia Eskolak

Gaur goizean egin dute Ikasten elkartearen 2022-2023 ikasturtea zabaltzeko ekitaldia, Esperientzia Eskolaren 18. edizioaren aurkezpenarekin batera, eta datorren astean hasiko dira ohiko jarduerak eskaintzen: joskintza eta puntu tailerra, ibilaldiak, Kaleetan Kantuz, luzaketak, antzerkia... baita herritar guztientzat zabalik antolatzen dituzten hitzaldiak ere. Eguenean izango da lehena, 10:00etan Armeria Eskolan, Antonio Riverarekin. Informazio guztia www.ikasten.info helbidean begiratu dezakezue.



Geoparkeak UNESCO-ren azterketa arrakastaz gainditu du berriz ere

Euskal Kostaldeko Geoparkeak beste lau urtez, 2026. urtera arte, UNESCOren Munduko Geoparke izendapenari eutsiko dio. Kalifikaziorik altuenarekin gainditu du azterketa, "Green Card" edo Txartel Berdearekin; ikerketa zientifikoaren, kontserbazioaren, hezkuntzaren eta natura-turismoaren alorrean Geoparkeak egindako lana eta bilakaera aztertu dute adituek. Geoparkeen Munduko Sarean jarraitzeko babesarekin beste lau urterako berritzea lortzen

duen hirugarren aldia da, eta ez da inolako neurri zuzentzailerik identifikatu. Albisteak "poztasun handiz" jaso dute Geoparkea osatzen duten hiru udalerriek (Deba, Mutriku eta Zumaiak), baita Leire Barriuso Geoparkeko kudeatzaileak ere: "Garrantzitsua da Geoparkeen Munduko Sarean jarraitzea, hori baita gure lan-esparrua. Aintzatespen honek gure ondare naturala eta kulturala zaintzeko eta sustatzeko ahaleginak areagotzera bultzatzen gaitu".



Eibarren dauden enpresek langabetuak kontratatzeko dirulaguntzak

Udalak, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren lankidetzarekin, herrian finkatutako enpresek langabeak kontratatzeko dirulaguntza-programa berria abiatu du. Aurtengo deialdiak 269.900 euroko partida ekonomikoa du; 169.450 euro Udalak finantzatzen ditu eta gainerako 100.450 euroak Lanbidek. Dirulaguntza hauek eskuratzeko, bai kontratatutak izango direnek, bai enpresa

kontratatzaileek, baldintza batzuk bete behar dituzte.

Bestalde, aurreko urteetan ez bezala, deialdi honetan kontratuen iraupena 12 hilabetekoa izango da, eta kontratu mugagabearen bidez formalizatu beharko da. Kontratuak lanaldi osoak edo partzialekoak (lanaldiaren %50 gutxienez) izan beharko dira. Informazio guztia Udalaren webgunean dago.

Mundua eraldatzeko beharra eta aukerak

Egoaizia eta Mugarik Gabe GKE-ek jardunaldi bereziak eskainiko dituzte datozen egunotan. Batetik, Egoaiziak Kontsumo Arduratsuaren VII. Azoka egingo du bihar; eta bestetik, Mugarik Gabek bi saio eskainiko ditu datorren asteko eguaztenean eta eguenean, urriak 19 eta 20, gaur egungo krisiaren aurrean gure esku ditugun eskubideei eta alternatibei buruz hausnartzeko. Beraz, Lierni Fernandez Egoaiziako koordinatzailearekin eta Xabier Martinez Mugarik Gabeko kidearekin egon gara horri buruz berbetan.



Urriaren 17a Pobreziaren Aurkako Munduko Eguna da eta, horren harira, Egoaizia Eibarko GKE-k zenbait ekintza antolatu ditu herrian. Batetik, Kontsumo Arduratsuaren Azoka jasoko du bihar Untzagak. Zazpigarren edizioa izango da aurtengoa eta, 10:30etik 15:00etara, hainbat ekintza egingo dituzte. Besteak beste, herriko eta inguruko hogeitau elkarte eta erakunderen proiektuak ezagutzera eman eta euren produktuak saltzeaz gain, opariak emango dituzte, hitzaldiak egingo dira, erakusketak, txikientzako tailerrak, herriko artisauen produktuak egongo dira, musika... “Eibartarrei beste kontsumo eredu batzuen berri eman nahi diegu”, esan digu Lierni Fernandezek.

Hori guztiaz gain, azkeneko urtean Egoaiziak martxan jarri duen Eibar Eraldatuz proiektuaren berri emango dute. Ekonomia alternatibo, solidario eta zirkularren alde egiten duten ekintzaileak, zerbitzuak eta alternatiba ekonomiko sozialak identifikatzen dituen mapa digitala dihardu lantzen Egoaiziak. “28 denda edo zerbitzu identifikatu ditugu eta proiektuan parte hartzen dihardute dagoeneko. Hurrengo urtean, mapa digitala webgune batean egongo da ikusgai, eibarta-



Beste orrialdean Lierni Fernandez eta Xabier Martinez hurrengo egunotako ekintzen karteletan. Goian, Kontsumo Arduratsuaren Azoka.

rrek jakin dezaten non kontsumitu dezaketen kontsumo arduratsuaren irizpideekin”, azaldu digu Fernandezek.

Mugarik Gabe erakundearen saio bikoitza

Eguaztenean eta eguenean, ostera, Mugarik Gabe GKE-ren txanda izango da eta egun baikoitzean dokumental bat emango dute. Emaldi biak Portalean egingo dira, 19:00etan, eta sarrera doakoa izango da. “Kontsumo arduratsuaren gaiarekin bat egiten duten lanak dira, eta bizitzeko eta kontsumitzeko beste eredu baten alde egitea beharrezkoa dela erakusten dute”, Xabier Martinezen iritziz.

Martinezen berbetan, dokumentalek bi helburu dituzte. “Batetik, gaur egungo eredu ekonomikoa salatzea. Nola funtzionatzen duen, nolako eragina duen ingurumenean, naturan, pertsonen eskubideengan... Eta gaur egungo testuinguru ekonomiko, energetiko eta sozialean (gerrekin, klimaren krisiarekin...), uste dugu gai hau mahai gainean jartzea eta zergatik gertatzen den salatzea are garrantzitsuagoa dela. Eta, bestetik, ez bakarrik hau guztia salatzea, baizik eta jendeari erakustea badaudela aukera eta alternatibak beste era batera bizitzeko eta kontsumitzeko, eta

Egoaiziak Kontsumo Arduratsuaren VII. Azoka egingo du bihar, 10:30etik 15:00etara, Untzagan

aukera hauek gugandik oso gertu ditugula”, azaldu digu.

19an ‘ExplotAPP, la precarización al alcance de tu móvil’ izeneko dokumentala eskainiko dute, etxeko banaketaren atzean dagoena argitara eramanez. “Glovo, Uber Eats eta horrelako enpresek hemen eta mundu guztian zehar nola jokatzeko duten salatzeko du ikus-entzunezkoak. Banatzaileen errealitatea ezberdina da El Salvadorren eta Euskal Herrian, baina atzean dauden enpresak berdinak dira eta tokian tokiko testuinguru soziala eta legedia aprobetxatzen dute ahalik eta etekin gehiena ateratzeko. Arazoa da utzi egiten zaiela”, azaldu digu Martinezek. Lana ikusi ondoren, herrian zenbait egunez izango ditugun Egoaiziako Peruko kideek euren ikuspuntua emango dute gai horren inguruan.

20an, bestetik, ‘Alternatibak plazara!’ lana ekarriko dute, bizitza eta planeta zaintzeko gertu



Etexz etxeko banaketaren atzean dagoena salatzen du ExplotAPP lanak.

Mugarik Gabe erakundeak bi dokumental eskainiko ditu, 19an eta 20an, Portalean

ditugun aukeren berri emateko. “Energiaren, elikaduraren, ekonomiaren eta zaintzaren inguruan zer egin dezakegun aipatzen da bertan eta Euskal Herrian ditugun aukeren berri ematen du”, diosku Martinezek. “Horrez gain, ikustera etorriko den jendearekin berba egitea gustatuko litzaiguke, Eibarren beste kontsumo mota bat egiteko dauden aukeren inguruan jarduteko”, gehitzen du. Horrela, REAS Euskadi sareko Blanca Boixek hartuko du parte solasaldian, ekonomia alternatibo eta solidarioaz gehiago mintzatzeko.

Gaur egungo egoerara “botere handiek eta enpresa multinazionalak” ekarri gaituztela dio Martinezek, eta sarritan ardura guztia

pertsona arruntengan jartzen dela dio, “baina egia da denok egin dezakegula zerbait eta horretan jarriko dugu indarra. Adibidez, hemen, Eibarren, gauza asko egin ditzakegu gure eguneroko bizitzatik eta kontsumo eredutik abiatuta. Dena dela, garrantzitsua da jakitea zeinek kontaminatzen duen eta nork urratzen dituen eskubideak gehien. Hau da, etekin ekonomikoei bakarrik begiratzen dien botere handiek, zenbait gobernu eta enpresa askok”, bere ustez.

Eta zeintzuk izan daitezke, adibidez, beste kontsumo eredu bat proposatzen dituzten aukerak? Izan ere, Fernandezek esan digun bezala, “batzuetan kontsumitzeko modua aldatu nahi dugu, baina ez dugu alternatibarik ezagutzen eta ez dakigu nora jo”. Beraz, aukera batzuk proposatu dizkigute: Fiare bankua, Goiener energia kooperatiba, Izar-kom telekomunikazio kooperatiba, tokian tokiko kontsumo-taldeak, eta abar.

Aukerak mahai gainean jarrita eta gaur egungo egoera ikusita, aldaketari ekiteko unea iritsi dela uste dute Fernandezek eta Martinezek. “Klima-aldaketa nabari dugu dagoeneko; gerrak beti egon dira, baina orain bat oso gertutik bizi dugu eta badakigu horren atzean interes energetikoak daudela; aditu eta zientzialari askok esan dute 2030era arteko urte hauetan energia lehengaien us-tiaketaren eta ekoizpenaren pikora iristen ari garela; ekosistemak aldatzen ditugun neurrian, geroz eta pandemia eta gaixotasun gehiago izango ditugula diote... Tamalez, ondorioak nabariak dira eta horregatik diogu aldatzeko unea orain dela, nahiz eta alternatibak aspalditik izan”, Martinezen berbetan.

Aitziber Cortazar, Debegesako Garapen Jasangarria saileko burua:

“Energia Bulegoak lehen pausoak ematen lagundu nahi die erabiltzaileei”

Debegesak ENERGIA BULEGOA garatu du eta Aitziber Cortazarrek bertan eskaintzen diren zerbitzuen berri eman digu.

Zein da Energia Bulegoaren funtzio nagusia?

Debabarreneko zortzi udalerriek eskaintzen duten zerbitzua da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak diruz lagunduta, eta zenbait funtzio ditu. Herritarrei zuzenduriko alderdiari dagokionez, eraginkortasun energetikoa sustatzea eta energia berriztagarriak ipintzea dira helburu nagusiak.

Horretarako, zer eskaintzen duzue?

Alde batetik, Debegesaren web orrialdearen barnean Energia Bulegoaren atala dago: energia.debegesa.eus. Energia berriztagarriak (panel fotoboltaikoak, panel termikoak, geotermia, aerotermia eta biomasa) eta birgaitze iraunkorraren (teilatua birgaitzea, igogailua instalatzea edo aldatzea, berogailuen instalazioa...) inguruko oinarrizko informazioa modu didaktikoan jaso daiteke bertan. Gainera, faktura elektrikoa optimizatzeko aholkularitza zerbitzua eskaintzen dugu.

Webguneko informazioaz gain, norbanakoek euren kasu zehatzen inguruko zalantzak argitu dezakete?

Bai. Horretarako bi bide ditugu. Batetik, webgunearen bitartez gurekin harremanetan jarri daitezke inprimaki batzuk betez eta argitu nahi den gaia zehatzuz. Bestetik, 943 82 01 10 telefonora deituta hitzordua eskatu daiteke Debegesan, edota email bitartez kontsulta bideratu: agenda2030@debegesa.eus

Energiaren gaia ahoz aho dabil. Garrantzi bereziki hartu du gaur egun Energia Bulegoak?

Debegesak aspaldi landu ditu energiaren inguruko gaiak eta, eboluzio naturalari jarraituz, gaur egungo egoerarekin egin du bat. Energiaren prezioak nola dauden ikusita, egia da orain



Aitziber Cortazar Debabarreneko Garapen Agentziako Turismo eta Garapen Jasangarria saileko arduraduna da.

dela urtebete inork egingo ez lituzkeen planteamenduak egiten ari direla orain. Zentzu horretan, Energia Bulegoak lehen pausoak ematen lagundu nahi die erabiltzaileei. Esate baterako, komunitate bateko bizilagunek eguzki-plakak instalatu nahi badituzte, zein pauso eman behar duten argitzen diegu, dirulaguntzen inguruko informazioa eskaintzen dugu, tramitazio legalaren ingurukoa... Horretarako, laguntze aldera, kontsulta egiten dutenen aldetik ahalik eta informazio gehien jasotzea komeni da, gero eta erantzunik zehatzena emateko.

Enpresentzako zerbitzuak eskaintzen dituzue?

Bai. Esate baterako, energia fotoboltaikoa ekoizteko duten gaitasuna neurtzen diegu. Azken urtean, 30 enpresa baino gehiagok erabili dute zerbitzua. Orain, turismo sektoreko enpresei energia analisi auditoretza egitea eskaintzen ari gara, energia berriztagarriak ipintzeko zein aukera izan ditzateketen ikus dezaten.

“Ikastaro dibertigarria eta interesgarria eskaintzea da helburua”

MARTIN AZPILIKUETA • komikilaria



Martin Azpilikuetak komiki-tailerra eskainiko du azaroaren 9tik 22ra. Klaseak ordubetekoak izango dira, 15 egunetik behin, eta bi talde antolatuko dira (LH-ko 4. mailatik DBH-ko 1. mailara; eta 16 urtetik gorakoak). Izena emateko epea urriaren 21ean amaituko da eta Udalaren webgunean aurkitu daitekeen formulario baten bitartez egin daiteke.

Martinek etxean jaso du marrazkigintzarekiko zaletasuna eta, orain, beste eibartar askori hedatuko die bere pasioa. Komiki zale eta komikigile, testu eta irudien bitartez burutik pasatzen zaizkigun milaka istorio kontatzeko gai garena irakatsiko digu Portalean egingo den ikastaroan.

Nolako izango da komiki-tailerra? Zer ikasiko dugu bertan?

Hasteko, marrazteko beldurra kenduko dugu. Garrantzitsuena ez da ondo marraztea, baizik eta beldurra kentzea eta trebetasuna hartzea. Horretarako, hainbat aholku emango ditut eta, ariketen bitartez, komikigintzan murgiltzen joango gara. Ikastaro dibertigarria eta interesgarria eskaintzea da helburua, ez dadila astuna izan.

Bi talde egongo dira, bata umeena eta bestea helduena. Ezberdin jokatuko duzu bietan?

Antzeko dinamikak jarraituko ditugu bi taldeetan. Gauza batzuk aldatuko dira, noski, baina oinarria an-

tzekoa izango da. Helduen kasuan, adibidez, ikuspegi landuago batetik abiatuko gara eta ezaugarri formalekoak landuko ditugu, baina talde bietan ondo pasatzea da asmoa.

Komikien inguruko gutxieneko jakintza edukitzea beharrezkoa izango da?

Oinarrizko ezagutza bat egotea ondo legoke, baina ez da beharrezkoa jakintza handirik edukitzea. Gauza gutxiarekin istorio bat nola kontatu daitekeen ikasiko dugu. Hau da, ahalik eta esfortzu txikienarekin, zerbait kontatzea. Izan ere, nahi bezalako pertsonaiak asmatu ditzakezu. Adibidez, lagunak diren karratu bat eta triangelu bat, eta etsaia borobil bat izatea. Gero, bokadiloak jarri eta elkarrizketa bat sortu dezakezu, eta hortik abiatuta istorio bat kontatu.

Zer prozesu jarraitu behar da komiki bat sortzeko?

Modu ezberdinak daude. Komikia luzea bada, gidoia lantzea komeni da. Nik, ostera, tira motzak egiten ditut gehienbat eta, horrelako kasuetan, inprobisatzeko aukera gehiago daukazu. Horrela, bat-batean ideia bat bururatzen bazaizu, pixka bat garatu eta istorio



bat sortzen duzu. Beraz, ez dago modu jakin bat komikiak sortzeko eta hori da komikien xarma, norberak bere erara sortzea.

Komikietan zenbaterainoko pisua dute marrazkiek eta zenbaterainokoa testuek? Nola uztartzen dira elementu biak?

Elementu bakoitzari norberak ematen dio eman nahi dion garrantzia. Agian, gidoia edo elkarrizketa oso garrantzitsuak izan daitezke eta marrazkiak oso sinpleak; edo alderantziz. Pelikuletan ere askotan esaten dutenez, batzuetan ez da garrantzitsua kontatzen dena, baizik eta nola kontatzen den argazkilaritzaren, planoen, koloreen eta bestelako kontu teknikoaren bitartez.

Komikien munduan estilo eta mota ezberdinak daude (manga, superheroien istorioak, nobela grafikoak...), ezta?

Bai, estilo-sorta zabala dago. Garrantzitsua da erreferenteak edukitzea eta, zentzu horretan, Juan San Martin liburutegian hainbat komiki hartu ditzakegu maileguan. Gainera, komiki gehiago, komikigileak eta ilustratzaileak ekartzea da ideia. Bestetik, komiki-tailerreko parte-hartzaileek euren estiloa garatuko dute

komikiak sortzeko orduan eta, amaieran, dena batzea eta argitaratzea da gure asmoa.

Normalean, komikiak eskuz sortzen dira edo ordenagailuen laguntzarekin?

Batzuek lehenengo zirriborroa eskuz egiten dute eta, gero, ordenagailuan jartzen diote tinta. Nik, adibidez, dena eskuz egiten dut eta, gero, marrazkia eskaneatu eta Photoshopen irudia garbitu eta gauza sinpleak egiten ditut.

Zuri zein motatako komikiak egitea gustatzen zaizu?

Amerikako Estatu Batuetako undergorund komikiak gustatzen zaizkit gehien bat. Adibidez, Robert Crumb, Daniel Clowes... Horrelako autoreak nahiko apurtzaileak izan ziren. Musikarekin alderatuz gero, punkiak zirela esango genuke. Helduentzako kaleko gaiak lantzen zituzten, nahiko beroak eta umore azidoarekin. Beraz, ez dut estilo bakar bat lantzen, baina modu inkontziente batean aipatutako autoreak kopiatu ditut gehienbat, nahiz eta beste komiki batzuetatik ere gauzak hartu ditudan. Adibidez, Snoopyren eragina izan dut batzuetan.



“Garrantzitsuena ez da ondo marraztea, baizik eta beldurra kentzea eta trebetasuna hartzea”

“Ez dago modu jakin bat komikiak sortzeko eta hori da komikien xarma, norberak bere modura sortzea”

Snoopy?!

Bai! Umeei zuzenduta dagoela ematen du, baina gauzak oso modu sinplean esanda gai sakonak lantzen ditu.

Beraz, esan duzun bezala, garrantzitsua da erreferenteak edukitzea, gero norberak bere estiloa garatzeko, ezta?

Bai. Azkenean, kopiatzen ikasten da, eta handik eta hemendik gauzak hartuz zure bidea egiten duzu. Eredu batzuk hartzen dituzu, marrazkiak askotan kopiatu eta gero zurerara eramanez.

Demagun komikien munduan murgiltzen hasi nahi dugula. Nondik hastea gomendatzen diguzu?

Norberaren gustuen arabera da hori. Horrela, zer bilatzen duzun jakinda, gomendio hobeak eman ahal dizkizut. Bestela, niri gustatzen zaizkidan komikiak gomendatuko dizkizut eta agian ez dira zure gustukoak. Hori bai, komikiak nahiko garestiak dira eta liburategian maileguan hartzea aukera ona izan daiteke.

Euskarazko komikigintza jarraitzen duzu?

Bai! Adibidez, nire erreferente nagusienetariko bat Jon Martin Colorado da, Euskal Herriko Unibertsitatean Arte Ederren fakultateko irakaslea eta zenbait komikiren egilea.

Ikastaroaz gain, baduzu proiekturik esku artean?

Beste hiru lagunekin batera komiki bat sortzen ari naiz. Batek orri bat egiten du, beste batek beste bat eta horrela. Momentuz lau orri egin ditugu eta bigarren itzulia hasiko dugu orain. Nahiko gauza bitxia da.

Bakoitzak nahi duen moduan lantzen du orri bakoitza edo ildo bat jarraitu behar duzue?

Bi lagunek metodo bera erabili dute beste komiki batzuk egiteko eta hasieran zehaztu zuten gauza bakarra izan zen istorio guztia sukalde batean gertatu behar zela. Beraz, hortik abiatuta, bakoitzak nahi duena asmatzen du.

Noiz argitaratuko duzue lana?

Ez dakit! Bestetik, orain dela urte batzuk pertsonaia bat sortu nuen, Kol, eta bere istorioekin bi ale argitaratu ditut. Orain, istorio gehiago pilatu nahi ditut gauza berri bat argitaratzeko, baina poliki-poliki garatzen doan zerbait da.



Inoiz ez da hain erraza izan euskara praktikatzea

Horretarako aukerak, behintzat, ez dira gutxi. ...eta kitto! Euskara Elkarteak orain dela hogeita bat urte sortu zuen Berbetan mintzapraktika-programa eta harrezkero hazten joan da, egitasmo kopuruan ez ezik, baita partaide-kopuruan ere. Gurasoak Berbetan eta Ongietorri egitasmoak Berbetan-en babesean jaio ziren, eta gaur egun ehun berbalagun baino gehiago mugitzen dira programa horien inguruan. Indarrez beteta eta berritasunekin ekin dio ikasturte berriari; izan ere, bi urteko etenaldiaren ondoren, berriro jarri baita martxan Ongietorri harrera eta elkarbizitzarako egitasmoa.

BERBETAN

21. ikasturteari ekin dio **BERBETAN** programak. 2002-2003 ikasturteaz geroztik, topaleku ederra eskaintzen die ahozko euskara hobetu nahi dutenei. Euskara praktikatzeko bide bat da, eta jende berria ezagutzeko ere bai. Horren ibilbide luzeko esperientziak erakutsi du, gainera, oso programa eraginkorra dela: “Programa honen gakoa euskara praktikatzeko taldeek eskaintzen duten giro natural eta informala da; berbalagunek, euren maila edozein dela ere, lasai egin dezakete berba euskaraz, lotsarik gabe; konplexuak alde batera uzten laguntzen die”,

ASTEAN BEHIN ORDUBETE

Hori da berbalagunei eskatzen zaien gutxieneko konpromisoa. Aukera ere ez da txikia, “egunero ditugu taldeak, astelehenetik barixakura, talde batzuk goizez elkartzen dira eta beste batzuk arratsaldez. Eurek erabakitzen duten lekuan, normalean tabernaren baten elkartzen dira, lehen aipatu dugun giro informal hori bilatze aldera”.

AHOZKO EUSKARA HOBETZEKO

Berbetan programaren hartzailleak asko dira: “Ahozko euskara-maila hobetu nahi dutenentzat programa bikaina da: euskaltegian ikasitakoa praktikan jarri nahi dutenentzat, inguruan euskaraz norekin hitz egin ez dutenentzat, etxean edo eskolan ikasitako euskara erdi ahaztuta izan eta berreskuratu nahi dutenentzat, azterketa ofizial baterako ahozko proba prestatu nahi dutenentzat, lagun euskaldunak ezagutu nahi dutenentzat...”.

EUSKALDUNAK ERE BEHARREZKO

Taldeetan euskara praktikatzeko beharra dutenak euskaraz ondo hitz egiten duten euskaldunekin elkartzen dira. “Euskaldunen figura oso inportantea da. Berbalagunek asko eskertzen dute taldean euskaraz ondo aritzen direnak ere egotea”, eta, beraz, dei egiten dute elkartetik, “euskaraz ondo moldatzen bazara eta praktika behar dutenei



“Euskara praktikatzeko taldeek oso giro natural eta informala eskaintzen dute”

laguntzeko prest bazaude, hemen duzu horretarako aukera”.

EKINTZA OSAGARRIAKHARREMAN SAREA HANDITZEKO

Astean behin ordubete, eta horrekin nahikoa ez daukanak, ekintza osagarrietan parte hartzeko aukera zabala dauka zain. “Ekintza ugari antolatzen ditugu, txangoak, ikastaroak, hitzaldiak... Berbalagunek asko eskertzen dituzte horrelakoak. Batetik, ondo pasatzen dutelako, baina, bestetik, kontuan izan behar dugu berbalagun askorentzat euskaraz berba egiteko duten aukera bakarra programa hau dela, eta, beraz, zenbat eta handiagoa izan euren euskal harreman sarea, orduan eta aukera gehiago izango dute euskaraz berba egiteko”.

GURASOAK **B**ERBETAN



Bizitzako beste arlo askotan bezala, gurasoak eredu dira seme-alabentzako, euskararen aldeko jarrera positiboa lantzeko orduan. Esparru estrategikoa osatzen du familiak euskararen transmisioan eta hori kontutan izanik jarri zuen martxan 2010ean **GURASOAK BERBETAN egitasmoa ...eta kitto!-k.**

TALDE NATURALETAN ERE MINTZAPRAKTIKA

Mintzapraktikako taldeetan parte hartzeko aukera eskaintzen du egitasmo honek ere, baina “talde naturalak ere izan daitezke, hau da, lehendik eginda dauden taldeak: kuadrillak, eskola inguruan edo parkean elkartzen diren guraso-taldeak...”. Elkartetik diotenez, “astean ordubete ateratzea zaila zela ikusten genuen eta ezezagunekin elkartzea, hasiera batean behintzat, oztopo txiki bat izan zitekeela antzeman genuen. Horri buelta eman genion eta talde naturaletan jarri genuen arreta”. Betiko jendea, betikoa egiten, hau da, euren eguneroko ohiturak aldatu gabe euskarari tartea egitea: “Konpromiso txiki batzuk hartuta, adibidez umek bokadilloa

jaten duten bitartean, umeen zain gauden bitartean... Edozein aukera txiki aprobetxatu euskaraz egiteko”.

FAMILIA-GIROA EUSKALDUNTZEA HELBURU

Etxekoen artean euskara gehiago erabili nahi duten familientzat pentsatuta dago egitasmo hori, “euskeraz berba egiteko ohitura berreskuratu nahi duten gurasoentzat, familia-giroa euskaldundu nahi dutenentzat, euren euskara hobetu nahi duten gurasoentzat...”.

ZENBAT ETA GEHIAGO, ORDUAN ETA HOBETO

Azken urteotako ikerketek diotenez, gurasoek euskara zenbat eta gehiago erabili, seme-alabek orduan eta euskara-maila hobea izango dute.

Baina, umek euskara-mailan baino, “helduok hizkuntzarekiko erakusten dugun begirunean eta garrantzian jartzen dute arreta, eta eredu horiek errepikatuko dituzte”. Eta helduekin gertatzen den bezala, “haur-gazteek zenbat eta gehiago menperatu euskara, orduan eta beldur gutxiago izango dute erabiltzeko. Eta horrek onurak besterik ez dizkie ekarriko, zentzu guztietan”.

EKINTZA OSAGARRI UGARI

Mintzapraktikako taldeak eskaintzeaz gain, ekintza osagarri ugari antolatzen dira urtean zehar. “Baina gauza batek ez du bestea kentzen, mintzapraktikako taldeetan ez dabilzan gurasoek ere har dezakete parte antolatzen ditugun ekintzetan: irteerak, tailerrak, ginkanak...”.

ONGI ETORRI **B**ERBETAN

Euskarara gerturatu, eibartarrok elkar ezagutu

Badira urte batzuk ...eta kitto! Euskara Elkarateak **ONGIETORRI harrera eta elkarbizitzarako programa sortu zuela. Bi urteko ete-naldiaren ondoren, eta Udalaren laguntzari esker, berriz abiatuko da programa indarberrituta.**

“Euskara ezertxo ere ez zekiten lagun asko hurbiltzen zitzaizkigun elkartera Berbetan egitasmoan izena emateko, baina mintzapraktika-kolaldeetan jarduteko gutxieneko maila bat eduki behar da. Konturatu ginen, euskara ikasten hasi aurretik, euskarara, euskal kulturara, Eibarrera eta Eibarko errealitatera gerturatzea garrantzitsua zela, eta behin pauso hori emanda erraza goa izango zela euskara ikastera animatzea”. Baina, arduradunek argi laga nahi dute ez dela euskara ikasteko programa: “Horretarako daude euskaltegiak eta euskaraklaseak. Gure helburua da Eibarrera etorri berri direnen edo denboratxo bat gure artean daramatenen eta bertakoen arteko elkarbizitza eta elkar ezagutza sustatzea, hau da,



jatorri ezberdinetako bizilagunak elkartzea eta elkar ezagutzea”.

TALDEAK 4 AUZOTAN

Herriko lau auzotan osatuko dira taldeak: “Urki, Ipuruua, Urkizu eta Amañako auzoetan eratu ditugu taldeak. Urkin, esate baterako, atzo elkartu zen lehenengo taldea, Arrateko Andra Mari ikastetxeak lagatuko gela batean. Eguenero elkartuko gara umeak eskolan dauden bitartean, 14:30etik 16:00etara”. Amañako eskolan hurrengo astean hasiko dira eta eguazteneko elkartuko dira, 14:30etik 16:00etara han ere”. Urkizun eta Ipuruua aldean ere elkartuko dira taldeak, nahiz eta oraindik egun eta ordutegi zehatzik ez izan.

SAIO PRAKTIKOAK, GIRO INFORMALEAN

Taldeak txikiak izaten dira, jatorri eta kultura ezberdinetako lagunez osatuak. Saiok teknikari batek dinamizatzen ditu eta “oso giro lasai

eta informalean hainbat gai jorrazten ditugu, oso modu praktikoan”. Horrez gain, herriko ekintzetan ere parte hartzen dute, “sasoian sasoikoa aintzat hartuta herrian antolatzen diren ekitaldietan parte hartzea animatzen ditugu, bertoko kulturara, ohituretara gerturatzeko modu hobereanean!”. Guraso berbalagunekin batera ere hainbat ekintzatan hartu izan dute parte, “eta, askotan, seme-alabek egiten diete itzulpena gurasoei euskaratik euren hizkuntzara. Esperientziak esaten digu programa eraginkorra dela, herritarron arteko harremanak sendotu eta sarea osatzen laguntzen baitu, eta euskal kultura eta euskara denona eta denontzat dela erakusten du”.

Hiru programetan parte hartzea doakoa da. Urte osoan eta edozein momentutan eman daiteke izena bide hauek erabilia:

943200918

elkartea@etakitto.eus
ongietorri@etakitto.eus

“Gure anbizioa da kulturaren inguruan zerbait egin nahi duenak topatu dezala non”

ANIAIZ ARIZNABARRETA • Arrate Kultur Elkarte



Euskarazko kultur sorkuntza babestu eta sustatzeko helburuarekin sortu zuten Arrate Kultur Elkarte 1952. urtean. Hasierako urte haietan Eibarko kultur mugimenduaren erreferentziatzako ardatza izan zen hainbat arlotan, eta 1.500 bazkide izatera ailegatu zen. Gaur egun 300 bat bazkide dauzka eta, hainbat boluntariok egiten duten lanari esker, aurrera jarraitzen du elkarteak.

Arrate Kultur Elkartearen sorreraren 70. urteurrena ospatzeko egitarau berezia antolatu dute urrirako, aurreko barixakutik bertatik hasita. Izan ere, Topalekuan elkar-terko bazkideen erakusketa kolektiboa zabaldu dute, Espe Zabala, Esther Fernandez de Maruri, Vicente Iriondo, Bakarne Elejalde, Fernando Retolaza, Carmen Mostaza, Esther Galarza, Jose Luis Irigoien, Arrate Osoro, Eli Eguren, Esteban Oroz, Mari Carmen Piriz, Irene Zarraua, Jesus Belaustegi, Igor Unanue, Mireia Agirrebeña, Angel Güenaga eta Santi Entrena artisten lanekin. Urriaren 23ra arte joan daiteke ikustera.

Egitarau bereziarekin ospatuko dituzue Arrate Kultur Elkartearen 70 urteak. Zer prestatu duzue?!

Hirurogehita hamar urte betetzen ditugula eta, bi helburu nagusi ditugu. Alde batetik, orain arteko ibilbidea eskertzea eta ospatzea, honaino ekarri gaituen guzti hori. Eta, beste alde batetik, aurrera begira jartzea. Orduan, egitarauan bi ardatz nagusi eduki nahi izan ditugu. Alde batetik, bazkideei leku berezia egitea, eta horretara dator bazkideen erakusketa abiatzea. Eta, beste batetik, bazkideek eskainitako tailerrak. Elkartearen askotariko bazkideak gaude, motibazio ez-

berdinekin, baina artista asko dauzkagu gure artean, kulturara dedikatzen diren asko. Elkarteak eurak dira, edo gu gara, ni ere bazkidea naizen aldetik, eta horren erakusle izatea ere nahi genuen. Urriaren 23ra arte egongo da Topalekuan erakusketa. Urriaren 15ean eta 16an Maite Arriagak Arteterapia tailerra eskainiko du, eta, urrian zehar, Mireia Agirrebeña, collage tailerra. Bazkideen aldetik hori. Eta bigarren ardatza litzateke, eibartarron topagune izatea eta aurrera jarri nahi dugun honetan, urriaren 22ra begira antolatu dugun egitaraua.

Zer antolatu duzue urriaren 22rako?

Goizeko ekimena kultur gintzaren inguruan antolatu dugu, abiatu nahi dugun hausnarketa bati lotuta: Eibarren daukagun eskaintza, zer den amesten duguna, zeintzuk diren ditugun erronkak... horren inguruan hausnarketa egitea. Horretarako, gaia lurreratzen lagunduko ditugun bost lagun gonbidatu ditugu, baina mahai-ingurua parte-hartzailea izatea nahi dugu eta, beraz, deia luzatu diogu parte hartu nahi duen edozein kultur eragile edo norbanakori. Eta mahai-inguru bera dinamika parte-hartzaile batekin ezaugarritu dugu, lantalde txikiagoetan gaiaren inguruan berba egiteko



Aniaiz Ariznabarreta eta beste bazkide boluntario batzuk arduratzen dira Arrate Kultur Elkartearen eskaintzarekin.

aukera emateko. Horren ondoren, omenaldia egingo dugu, sortzaileekin. Elkar-tearen 70 urteko ibilbide hori eskertu nahi dugu eta, abiatu zuten lagun haietako bi gure artean daudenez, eurekin elkartu eta omenaldi xume bat egingo dugu. Eta, gero, denok elkarrekin, ospakizun bazkari baten bueltan, izan den guzti hau eta izango den guztia ospatzea nahiko genuke. Bazka-lostea pixka bat girotzeko Hemen taldekoak egongo dira, kantuak musikatu. Hemen taldeko asko ere elkar-tearen lokalen bueltan ibiltzen dira eta nahi genuen Eibarko kulturgintzan, jardunean dabiltzan lagunei ere nolabait plaza ematen jarraitzea.

Zenbat bazkide dauzka elkar-teak gaur egun?

300 bat bazkidek osatzen dugu elkar-tea gaur egun, eta bi perfil daude. Alde batetik, 70 urte hauetan bi-delagun izan diren eta bazkide-zari leialtasunez eutsi dioten hainbat lagun. Eta gutxika gutxika batzen joan diren beste batzuk, hainbat gazte, bereziki lokalaren erabileratik gerturatutakoak eta bazkide izatera animatu direnak. Proiektuaren sostengatzaile nagusiak dira eta hau beraien etxe sentitzea nahiko genuke.

“Urriaren 22rako egitarauarekin Arrate Kultur Elkartearen orain arteko ibilbidea eskertu eta ospatu nahi dugu”

Bere sorreratik gaur arte, kulturgintza izan da elkar-tearen ardatza eta urte osoan antolatzen dituzue erakusketak, leihaketak, hitzaldiak eta beste hainbat jardura, baina horretan diharduzuenak boluntarioak zarete, ezta?

Bai, historikoki horrela izan da, boluntario taldeek izan dute egitaraua antolatzeko ardura hori, beti ere kulturari lotutako jarduerak sustapena edukitzera mugiduta. Eta gaur egun ere horrela izaten jarraitzen du. Alde batetik, egitarauan baditugu urte luzez ohitura bihurtu diren hainbat ekimen: pintxo lehiaketa 18. ediziotik goaz, ikus-entzunezkoetan 27. edizioa, Eguen

Elkarrizketaren bideoa
gure YouTubean ikusgai:



Zuri argazki lehiaketak ere 20 urtetik gora dauzka... Esandako moduan, gure erronka da orain arte egin diren hainbat konturekin jarraitzea eta, beste alde batetik, aurrera begira jartzea, etorri ahal diren nahi eta desio berriak jasotzea, joera berriak. Adibidez, ikus-entzunezkoetan nabarmena da zenbat aldatu diren gauzak, diaporamen inguruko topaketa bat izatetik, zenbat proposamen eta formato ezberdin ditugun gaur egun, zein aukera zabala dagoen. Gure anbizioa da kulturaren inguruan zerbait egin nahi duenak topatu dezala non, eta horretarako baliabideak eskaintzea.

Baliabideak aipatuta, zuen lokalak era guztietako jarduerak egiteko erabiltzen dituzte elkarte, talde eta eragile askok. Zuen ateak beti zabalik egoten dira?

Elkartearen beste ardatzetako bat hori izan da hasieratik, sortzaileekin hasi eta bidean atzetik etorri diren guztiek eutsi dioten ekarpen nagusienetako bat. Ez da batera erraza izaten horrelako lokalak eskura izatea gaur egun, eta guk asko baloratzen dugun elementu bat da, bai gu geuk ekimen propioak egiteko, zein gaitzetzeko norbanako edo eragileei leku bat emateko.

Horrek, nahitaez, elkarte eta talde ezberdinen arteko hartueman eta elkarlanak sustatzen ditu. Nola ikusten duzue herri mailan kulturagintzan egiten den lana?

Guk uste dugu gauza asko egiten direla. Gure kezka, puntu bateraino, bakoitza bere aldetik ez ote dabilen izan daiteke. Egia da lokalean elkartzen garen eragile ezberdinen artean sortzen direla horrelako baterajotzeak, sinergiak eta abar. Bide horretan sakondu nahiko genuke, eta guk eragile ezberdinei elkarren jarduerak sustatzeko bideak planteatzen dituen hitzarmen formato bat eskaintzen diegu. Hori bada jorratu nahi ditugun bideetako bat eta 22ko mahai-ingurua ere kezka horri erantzutera dator. Denon artean pentsatzea, edo zein iritzi ditugun ikustera Eibarko kulturagintzaren egoeraren inguruan, bakoitzaren egoeraren inguruan ere bai, eta erronka horiek partekatzea eta ikustera zein gauzatan egin dezakegun denok batera,



“Kultur arloan Eibarren gauza asko egiten direla uste dugu, baina bakoitza oso bere aldetik ote dabilen kezka daukagu elkarteetan”

eta zein gauzatan akaso bakoitza bere aldetik, baina elkar elikatuta eta indartuta.

Aurrera begira, nola ikusten diozue elkartearen etorkizuna?

Gu beti gaude lantaldea indartu nahian, beraz, norbaitek gerturatu nahiko balu, guregana jotzeko gonbidapena egiten diogu. Eta, lehen esandakoaren bidetik, zerbait egin nahi duenak topatu dezala non, edo izan dezala horretarako aukera. Eta, zentzu horretan, gure baliabideak eskainiko genizkioke.



DAVID KARBA

Hurrengo egun handiaren zain

Astelehenean bizitzan ikusi dudak ikuskizun ederrenetariko bat antolatu nuen. Baina agian, azaldu ahal izateko, abuztuaren 29ra bueltatu beharko nintzateke.

Egun hartan Madrilengoen nengo lagun batzuekin Sergiok ('Pumba') Ola Ersfjord aurkeztu ninduen, 'Hellcopters' musika-taldearen teknikaria, besteak beste. Artista batekin iberiar penintsulan egin behar zuen bira baten inguruan berba egin zidan eta izaera familiarreko kontzertu intimoa lotu nahi zuen. Aipatutako artista Jonathan Hultén suediarra zen, Tribulation taldeko gitarra-jole ohia, eta bere gitarrarekin, efektuak egiten dituen pedalarrekin, makillaje kiloekin eta jantzi ilunekin etortzekoa zen bere proposamen garbi, bakar eta hipnotikoaren bitartez Eskandinaviako basoetara teleportatzeko.

Jose eta Beinat Zaizoi tabernako arduradunekin berba egin ondoren, eta Tribulation taldeko eta Jonathanen jarraitzaileak diren David eta Aintzaneren etxean ostatua lortu eta gero, astelehenean zerbait magikoa eta errepikaezina gertatzea lortu genuen. Horrelako zerbait antolatzea oso zaila da proposatzen zenarengatik, erabateko isiltasuna eskatzen duelako. Bolumena izugarri baxua zen, amplifikatu bariko gitarrarekin jo zuen, eta bere ahotsa eta giro-soinuak gitarrak eskatzen zuen horretara egokituz. Bertan bildu ginenak hipnotizatzea lortu zuen eta malkoak atera zizkigun bati baino gehiagori. Egia esan, zentzu horretan hitz gutxi daude gertatutakoa definitzeko. Jendea marketin postura hurbildu zen eta eskupeko oparoa laga zuen itsulapikoan, kontzertua dohainik izan baitzen.

Hala ere, honen guztiaren kontu sinbolikoena izan zen Montpellierretik etorritako bi neskato etorri zirela, aurreko egunean Jonathan Portugaleten ikusi eta gero. Horrelako zorakeriak askotan egin izan ditut, baina bihotzera heltzen zait nik antolatutako ikuskizun batean gertatzen denean. Jonathanek bere abestietako batean ondo esaten duen bezala, orain hurrengo egun handiaren zain geratzea besterik ez zaigu geratzen.

“Jonathanek bere abestietako batean ondo esaten duen bezala, orain hurrengo egun handiaren zain geratzea besterik ez zaigu geratzen”

Zapatuko judo txapelketek urriko azken asteburuko Espainiako VII. Jiu-Jitsu Koparen aurrekari

Bihar Ipuruako kiroldegiak judoko haurren txapelketaren 44. edizioa eta emakumezkoen Judo txapelketaren 26.a hartuko ditu. Haurren arteko lehiaketa goizeko 09:00etan hasiko da eta 13:00etan amaituko eta emakumezkoena, bestalde, arratsaldean jokatu da, 14:30etik 19:00ak arte. Kalamua klubeko Manu Agirrek dioen bezala, “gure torneotik aparte ez dago besterik emakumezkoekin bakarrik egiten denik”. Gainera, beste batzuetan egin duten lez, antolatzaileek solidaritatearen aldeko ikutua ere eskainiko dute, “janaria bilduz Elikadura Bankuarentzat”.

Judoaren biharko egun handiak jarraipena izango du hilaren azken asteburuan, gure herrian zazpiga-



Ander Otaegi, Ander Curiel, Manu Agirre eta Jon Iraola aurkezpen ekitaldian.

rrenez antolatuko den Espainiako Jiu-Jitsu Koparekin. Ipuruak estatuko eta atzerriko 150 judoka baino gehiago bilduko ditu urriaren 29an eta 30ean, Borroka, Ne-Waza edo lurreko judoa, Duo eta Show modalitateetan lehiatuko duten parte-hartzaileekin. Aurten urrezko ezteiak bete dituen Kalamua Judo Klubak antolatutako txapelketa goizeko 09:00etan hasiko da eta, estatuko txapeldunekin batera, han izango dira klubeko ordezkariak ere euren onena ematen. Espainiako autonomia guztietako onenak etortzeaz

aparte (Espainiako ekipo nazionala tartean), federazioetako ordezkari eta lehen mailako kirol-epaileek ere bisitatuko gaituzte, “urtero bezala, hemen zelan hartzen ditugun ikusita, pozarren itzultzen direlako”.

Aukera bikaina, beraz, bi asteburuotan eskainiko zaizkiguna “lizentzia mordoia izanda ere, kirol minoritariotzat hartzen den” kirolarekin gozatzeko. Ipuruako ateak zabalik izango ditugu “kirol modalitate horrek dituen baloreez” jabetzeko eta kirolari eta ingurukoek sortzen duen “giro bereziarekin bat egiteko”.

Oso parekatua dago foball-zaletuaren liga txapelketa



Azken jardunaldian Bar Txokok America Sport liderrari 2-1 irabazi ondoren, lau jardunaldi besterik jokatu ez badira ere, dagoeneko ez dago partidu guztiak irabazi dituen talderik foball-zaletuaren liga txapelketan. Hiru talde daude sailkapenaren goi-goian, euretako bakoitza hiru partidu irabazi eta bestea galduta (America Sport, Bar Txoko eta Garajes Garcia), eta gertutik, puntu bakarrera beste bat dute (JMR Tankemans), azken hori partidurik galduta gabe bakarra dena -hori bai,

bi berdindu ditu eta horregatik doa atzetik-. Eta laukote horri gertutik jarraitzen die Gastro Gildak, zazpi punturekin. Atzekoei begira, Bar Banaka L. Rueda da atzean geratu den bakarra, jokatuak lau partiduak galduta.

Honako hauek izango dira asteburu honetako partiduak: bihar, Feredu - Adahi, Garajes Garcia - JMR Tankemans eta America Sport - Gastro Gilda; eta etzi, Bar Banaka - TX4 Fitness Akast eta Bali Center Sports - Bar Txoko.



Team Bali Basque Crossfit Txapelketan izango da

Matsariako poligonoan kokatuta dagoen Bali Sport Centerren sortutako Team Bali taldeak Basque Crossfit Txapelketan hartuko du parte azaroaren 4tik 6ra. Eibarko laukotea Euskal Herriko kirolari onenen aurka lehiatuko da crossfita, herri-kirolak, ikuskizunak eta bestelako ekitaldiak hartuko dituen saioan, Bilbao Arenan.

Eibar Rugbyk Zornotzan irabazi zuen eta Unben galdu Cocos-en aurrean

Ohorezko Mailan jokatzen duen emakumezkoen lehen taldeak amore eman zuen Sevillako Corteva Cocos-aren aurrean liga honetan Unben jokatutako lehenengo partiduan (12-45). Eider Garciak eta Agueda Pisek bi entsegu egin zituzten eibartarrentzat eta Copelandek transformazioa lortu zuen. Ez dute zorte handirik Guntinen neskek denboraldi hasiera honetan eta, aurreko astean Aleu Cid-ek min hartu bazuen, oraingoan Adara Alfonso izan zen buruan hartutako kolpe baten eraginez ingresatu behar izan zutena. Hilaren 23an, Sant Cugat hartuko dute Unben.

Euskal Ligan jokatzen duen gizonzkoen taldeak, bestalde, oraingoan jakin izan zuen, bere maila erakutsiz, Zornotzako Urgozori gailentzea. Azkenean markagailuak erakusten zuen 10-31 emaitzarekin



Copelandek transformazioa lortu zuen.

Ibarbururen mutilek, minutu askotan jokalaria bat eta bi gutxirekin jokatuta ere, erakutsi zuten maila berriari neurria hartzen doazela. Garaipen garrantzitsua, beraz, taldearen motibaziorako.

Partiduaren laburpena
YouTube ikusgai:



Eibar Eskubaloiko Mikel Zuloaga multzoko golegile nagusia da

1. Nazional Mailako Mecalbe Eibar Eskubaloiak aurreikusten zena baino garaipen errazagoa lortu zuen azken jardunaldian Beti Onak talde nafarraren aurrean (32-21). Atsedendirako bost goleko alde lortu zuten eibartarrek eta, horri gehituta Mikel Guerrak atepean egindako lan bikaina, partiduaren kontrola euren eskuetan izan zuten goitik behera. Goleatzaileen arloan, bestalde, Mikel Zuloagak beste bederatzigol sartu zituen oraingoan eta multzoko nagusia jarraitzen du izaten; ondo lagundu zioten Garikoitz Viguerak eta Jon Barrueta-beñak, sei eta bost golekin hurrenez hurren. Mecalbe bigarren da sail-

kapenean, Casademont Zaragoza liderrarengandik puntu bakarrera. Ohorezko Zilarrezko Mailako emakumezkoen Mecalbe Eibar Eskubaloiak ez zuen zorte bera izan eta 29-18 galdu zuten Iruñean Helvetia Anaitasunaren kantuan. Lehen zatian aurkariei gertutik eustea lortu bazuten ere, eibartarrek azkenean amore eman behar izan zuten bigarren zatian. Ane Treviño eta Naia de Castro izan ziren, beste behin, taldeko goleatzaile nagusiak, bakoitzak bost golekin. Maila berriari neurria hartzen joateko beste partidu bat izan zen eibartarrentzat; bihar Gurpea Beti Onak taldearen aurka jokatuko dute Ipuruan, 18:30ean.



Zuloaga sasoi onean da atearen aurrean.

Mikel Mujikak Hawaiko Ironman txapelketan hartu du parte

Pandemiaren eraginez hiru urtez atzeratu ondoren, Ironman distantziako munduko txapelketa ezin bereziagoa suertatu da oraingoan, Gustav Iden norvegiarrak lasterketa irabazi eta probako marka egin duelako, 7:40:23ko denborarekin. Mundu mailako triatloi entzute-tsuen Konan jokatzeko da eta, “polita bezain gogorra” dela aipatzen



Zarautzen parte hartu zuen laukotea.

dute bertaratzeko aukera izan duten triatletek. Oso baldintza gogorretan jokatzeko da lasterketa: temperatura beroak, hezetasun handia, ez dago itzalik eta inguru guztiak bolkanikoak dira.

Mikel Mujika Eibarren bizi den bergararrak orain dela bi urte lortu zuen Hawaiko Ironman probarako sailkatzea eta, orain jokatu lako lasterketan, triatloilariak 8:55:59ko denborarekin gurutzatu zuen Kailuako helmuga. Lasterketa bikaina egin eta gero, bere adin taldean 16. postua lortu zuen, horrela bere helburuak bete eta “txikitako ametsa egi bihurtzeko”.

Jaz-eko bikote mistoak

Jaz Eibar Triatloi Taldeko lau kidek hartu zuten parte Zarautzen bertako herri-triatloian, “kirol hau ezagutzen ez duen jendea, batez ere emakumezkoen kasuan, parte hartzera animatzeko” helburuarekin antolatzen den proban. Horrela, 200 bikote mistok hartu zuten par-



Mikel Mujikak pozik amaitu zuen Hawain.

te eta euren artean izan ziren Alex Higuera eta Ane Aspek, alde batek, eta Maialen Zubizarretak eta Ander Azkuek osatutakoa, bestetik. Eibartarrek diotenez, “giro bikaina bizi izan genuen bertan”.

Ganix Rodriguez eibartarra lehen liderra Euskal Herriko 32. hiru-txirlo txapelketan

Aurreko zapatuan Asola Berriko bolatokian jokatu lako Euskal Herriko 32. Hiru-txirlo bola joko txapelketaren lehenengo jardunaldian parte hartu zuten 69 bolariren artean, eibartarra bakarrik izan zen zazpi txirlo (2/3/2) botatzen, aurrea hartuz MX3T Markina-Xemeingo elkarteko hiru ordezkariak. Jon Malaxetxebarria, Mikel Urkia eta Fidel Madariaga, orden horretan, sailkatu ziren Ganixen atzetik, sei txirlorik berdin dute eta parrekoak egin ondoren. Bosgarren eta seigarren

postuetarako ere parrekoak jokatuko behar izan ziren, kasu horretan Elgoibarko Jabier Osoro eta Jone Perales eibartarren artean. Azken hori liderra da emakumezkoen sailkapenean eta Asola Berriko Kepa Rodriguez taldekidea gauza bera jubeniletan. Zapatu honetan Markina-Xemeingo Barinaga auzoko bolatokian jokatu lako da bigarren jaurtialdia.

Aldameneko argazkian, goian ezkerretik eskumara: Jabier osoro, Ganix Rodriguez, Mikel Urkia eta



Fidel Madariaga. Behean, orden berean: Jone Perales, Garikoitz Rodriguez Asola Berriko presidentea



BIDEOA gure YouTube
kanalean ikusgai

Domekara arte egongo da Liburu Azoka Untzagan

Untzagan dagoen Eibarko Liburu eta Disko Azokak domekan itxiko ditu atepak, baina aurretik goiz eta arratsalde zabalduko dute, 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era. Euskadiko Liburu Ganbarak Eibarko Udalaren laguntzarekin antolatutako azokan %10eko deskontuarekin eros daitezke literaturako azken nobedadeak eta, horrekin batera, aukerako liburuak eta deskatalogatutakoak erosteko aukera ere badago.



Deporreko argazkilarien erakusketak eta aldizkaria

Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik, urrian zehar bi argazki erakusketa ikusteko aukera egongo da: Depor tabernan "Hablar Venecia" izenburuko erakusketa kolektiboa dago ikusgai, hainbat egileren lanekin, eta Portaleko tabernan, berriz, Irati Ayerzaren "Gure familia eta beste istorio batzuk" izeneko bisitatu daiteke. Eta, horrez gain, ARGAZ aldizkari digitalaren 3. zenbakia prest dago Interneten, https://issuu.com/argazkilaritza/docs/argaz_n_3 helbidean.



I. Ojanguren lehiaketako sari nagusia Aitor Aranak jaso du

XXXV. Indalecio Ojanguren Argazki Lehiaketaren epaimahaiak bilduma onenari Ohorezko Saria Aitor Aranari ematea erabaki du, aho batez. Horrez gain, Indalecio Ojanguren Saria jaso dute Eibarko Oskar Baglietok, Bergaran bizi den Jose Agustin Gurruchaga eibartarrak, Bartzelonako Diego Pedra eta Alacanteko Jose Lopezek. Euskal Herri Mailako Sariak, berriz, Eibarko Jose Luis Irigoienek, Beasaingo Manu Barreirok eta Irungo Oskar Gaskonek jaso dituzte. Eta Eibar mailako sariak Jose Vila, Mikel Urionaguena eta Josu Gisasolarentzat izan dira. Zortzi eta 16 urte bitarteko parte-hartzaileen artean, bestalde, Mendaroko Malen Carbajo saritu dute. Horrez gain, 09/2022 Argizaiola lehiaketarako sailkatu diren partaideak hauek dira: Aitor Arana, Oskar Baglietto, Jose Agustin Gurruchaga, Jose Luis Iriogien, Manu Barreiro eta Oskar Gaskon.

Lehiaketaren edizio honetara estatu osotik ailegatutako 130 argazki aurkeztu dira. Irabazleen lanak eta parte-hartzaileen selekzioa Portaleko erakusketa aretoan ikusi ahal izango dira urriaren 28tik aurrera. Sariak banatzeko ekitaldia erakusketaren inaugurazioarekin batera izango da.

Pagatxaren bideo-forum saioa

Pagatxa emakume taldearen Emakumeen Istorioak egitasmoaren baitan, astelehenean Alicia Alonso dantzariaren inguruko bideo-forum saioa egingo da Portaleko areto nagusian, Patricia Perex Cotok dinamizatuta. Sarrera libre eta dohainik izango da.





Kobrea eta malabareak oinarri dituen zirkua

“Kobr3” izenekoa eskainiko du Zirkozaurre konpainiak gaur arratsaldean, Errebal Plazan, 19:00etan hasita (doan). Izenak aditzera ematen duen bezala, kobrea da ikuskizunaren gidaria. Gorka Pereira, Pablo Cáceres eta Imanol Suso antzezle eta sortzaileek malabare teknikak, objektuen manipulazioa, Cir gurpila, bertikalak eta mugimendu konpasatuak konbinatzen dituzte, koreografia sinkronizatuaren bitartez zirkua garaikidea eskaintzeko.



Kantuzko oilar-borrokak

Bihar arratsaldean oilar-borrokak hartuko ditu Errebal Plazak, 17:00etatik aurrera. Rap musikari lotutako oilar-borrokak bi pertsona edo gehiagoren arteko hitzeko norgehiagokak dira. Bataila horietan, inprobisatzeko orduan aurkariaren aurrean nagusitasun intelektual edo tekniko frogatu nahi da, horrela eztabaida horretako txapeliduna aukeratzeko. Biharko saioan Red Bull lehiaketako eta F.M.S. (Freestyle Master Series) liga profesionaleko Espainiako goi-mailako epaileak arituko dira. Kanporaketak 19:00ak arte izango dira eta ekitaldi nagusia (Haki del Rey), berriz, jarraian hasiko da, 22:00ak arte. Sarrera doan da.



Tito Ramirez Combo Portalea Musika Klubean

Domekan, 19:00etan, Tito Ramirez Combo-k zabalduko du Portalea Musika Klubean denboraldi berria. Mozorro baten atzean ezkututzen den Tito Ramirez taldean arituko da: José María Rubio (bateria), Javier Geras (kontrabaxua), Mia Vergara (ahotsa), Oscar Martos (teklatuak) eta Tito Ramirez (gitarra) bera. XX. mendearen erdialdeko erritmoak eskainiko ditu, genero nahasketa handiarekin: R&B, latin rock&roll, boogaloo, shake, soul... Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelaren deskontuarekin).

Mercedes Kareaga Bekarako lanak, urriaren 31rako

Mercedes Kareaga Bekaren lanak aurkezteko epea urriaren 31n amaituko da. Aurreneko edizioaren bigarren deialdiak Mercedes Kareagaren biografia du ikergai. Egun horretarako aurkeztu behar den proiektuak, gehienez ere, 15 orrialde (7 orri) izango ditu. Informazio gehiago nahi izanez gero, Udalaren web orrian begiratu daiteke.

Zapatu Poetikoak bueltan



Bihar itzuliko dira Zapatu Poetikoak Itzamná akademiara. Maite Lorezoren poesia tailerraren eskutik egingo den saioa 18:00etan hasiko da, Eduardo Luis Díaz Expósito bilbotarra-ekin. Azaroaren 26an izango da hurrengo saioa, ordu eta toki berean, eta egun horretarako Blanca Sarasua gonbidatu dute. Betiko martxan, saioetan poesia errezitaldiak eta liburu aurkezpenak tartekatuko dituzte.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	2				6	7
			6	4		3
7			2	3	8	
	4			7	1	
	1					3
		9	5			2
		5	9	2		1
4			1	5		
3	1					8

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

2	8	6			7		1		
		1					8	2	
							9	3	
	9			8				5	
			9	5					
5				7				3	
3		4							
7	1						4		
	5		2				3	7	1

**S
U
D
O
K
U**

soluzioa

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9



AURKITU 10-NAKO EZBERDINTASUNAK



Urriak 14/20

BARIXAKUA 14

LIBURU AZOKA

11:30/13:30 eta 17:30/20:30

Eibarko Liburu Azoka.
Untzaga.

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00 2-8 urte bitar-
teko haurrentzat.
Txaltxa Zelaian.

HITZALDIA

19:00 "El Sentido de la
Vida", Javier Aizpirik
aurkeztuta. Portalea.

ZIRKUA

19:00 "Cobr3"
(Zirkozaurre). Doan.
Errebal Plazia.



ZAPATUA 15



AZOKA

10:30/15:30

VII. Kontsumo
Arduratsuaen Azoka.
Untzaga.

LIBURU AZOKA

12:00/14:00 eta 17:30/20:30

Eibarko Liburu Azoka.
Untzaga.

MUSIKA

17:00/19:00 Oilar-
borrokak (kanporaketak).
19:00/22:00 Haki del Rey.
Doan. Errebal Plazia.

POESIA

18:00 Zapatu Poetikoak.
Eduardo Luis Diaz Expositio.
Izamna akademia.

DOMEKA 16

MUSIKA

11:00/13:00 Usartza
txistulari bandaren kalejira.
Urki auzoa, Legarre
(Ospitala) eta Ego-Gain.


LIBURU AZOKA

12:00/14:00 eta 17:30/20:30

Eibarko Liburu Azoka.
Untzaga.

MUSIKA

19:00 Tito Ramirez Combo.
Portalea Musika Kluba.
Portalea.



ASTELEHENA 17

BIDEO-FORUMA

18:30 Emakumeen
Istoriok: Alicia Alonso.
Dinamizatzailea: Patricia
Perex Coto. Doan. Portalea.

BILERA IREKIA

18:30 Ipuruako Merkatu
Plazaren inguruko ideiak
eta proiektuak parteka-
tzeko. Ipuruako Merkatu
Plaza.

MARTITZENA 18

IKASTAROA

18:30/20:00 Kokedamak
egiteko tailerra. ...eta kitto!
Euskara Elkarte (Urkizu,
11 solairuartea).

EGUAZTENA 19

DOKUMENTALA

19:00 "ExploitAPP":
Prekarizazioa zure
mugikorrean eskura".
Portalea.



EGUENA 20

HITZALDIA

10:00/12:00 "XX-XXI.
mendeetako 20ko
hamarkada, hain urrun
edo hain hurbil?", Antonio
Riverarekin. Ikasten-ek
antolatuta, sarrera librea.
Armeria Eskola.

DOKUMENTALA

19:00 "Alternatibak
Plazara!". Portalea.

ERAKUSKETAK

Urriaren 16ra arte:

- "Dendatzaile
Mesoamerikarrak"
argazki erakusketa.
(Untzaga jubilatuta etxea).

Urriaren 23ra arte:

- PILAR SOBERON-en
"Itzalpean - Espectro
de oscuridad".
(Portalea).
- ARRATEKO KULTUR
ELKARTEKO bazkideen
erakusketa kolektiboa.
(Portalea).

Urriaren 31ra arte:

- "HABLAR VENECIA"
argazki erakusketa
kolektiboa.
(Depor taberna).
- IRATI AYARZAREN "Gure
familia eta beste istorio
batzuk".
(Portalea taberna).

Abenduaren 11ra arte:

- "EIBAR ORGANOSZ BLAI".
(Eibarko Armagintzaren
Museoa).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

ANTZERKIA

14an (barixakua) / 20:30

Ermua Antzokia
"Greenpiss", Yllana
taldearen eskutik.
Sarrera: 12 euro.

ELGOIBAR

ANTZERKIA

16an (domeka) / 16:30

Herriko Antzokia
"Munduari itzulua
80 egunetan", Glu Glu
Producciones
konpainiarekin.
Sarrerak: herrikoantzokia.
eus.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **15ean:** 19:45, 22:30
- **16an:** 20:00
- **17an:** 20:30

“En los márgenes”
Zuzendaria: Juan Diego Botto



2 ARETOA

- **15ean:** 16:30, 19:30, 22:30
- **16an:** 17:00, 20:00
- **17an:** 20:30

“Los renglones torcidos...”
Zuzendaria: Oriol Paulo



ANTZOKIA

- **15ean:** 17:00, 19:45, 22:30
- **16an:** 17:00 (1 aretoa), 20:00
- **17an:** 20:30


“Efall”
Zuzendaria: Scott Mann



ANTZOKIA

- **15ean:** 17:00
- **16an:** 17:00

“Boonie Bears”
Zuzendaria: Leon Ding



IREKIERA EKITALDIA
JABE BERRIEKIN
BOLERA taberna
KANTABRIA ETXEA

urriak 22 / zapatua / 18:00
pinxoak, canapeak, hestebeteak... izango ditugu
ZUEN ZAIN GAITUZUE!

Asteburuko menuak eta erretegia



FUNEUSKADI
Funeraria Mugica

FUNERARIA MUGICA
Funeraria

TANATORIO EIBAR

TANATORIO FUNERARIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar:
Otaola, 27

Elgoibar:
Xailon, s/n. SGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Eibarko bulegoa:
Sildebarrieta, 20

Ernuasko bulegoa:
Marqués de Valdespina, 16

Eibar - Elgoibar - Ernuak - Bilbo - Barakaldo - Leioa - Getxo - Sestao
Portugalete - Santurtzi - Basauri - Galdakao

688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **LAIA**, 9 urte bete dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zoriooonak, **KALA!!!** Urtebete mundua ilusifua-ren magiarekin betetzen. Asko maite zaittugu!!! Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **AITOR!** Astelehenian 5 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxeko guztion partez!



Zorionak, **ARTZAI!!!** Etxeko txapeldun haundixena zara, jarraitu zu zeu izaten!!! Asko maite zaittugu.



Zorionak, **URKO**, gaur 8 urte betetzen dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **MARKEL!!!** Atzo 6 urte bete zenuazen-eta. Musu haundi haundi bat famelixa guztiaren partez. Segi holan!!!



Zorionak, **UNAI**, hillaren 20xan 7 urte beteko dozuz-eta. Asko maite zaittuen famelixaren partez.



Zorionak **AMAMA, MARA** eta **DANELE!!** Segi zuen irrifarriekin inguruak alaitzen. Asko maite zaittugu. Famelixakuen eta, batez be, Oxel eta Polen partez.



Zorionak, **EDU** (domekan zure urtebetetzia dalako) eta **ITZÁ** (hurrengo domekan 19 urte beteko dozuzelako). Musu haundi bana famelixa guztiaren partez.

Manoli Gomez Torres

1. URTEURRENA
2021/10/12

"Beti gure bihotzetan.
Ez zaitugu inoiz ahaztuko"

MAITE ZAITUGU
- ETXEKOAK -



MARITXU Gantxegi 2019/01/12
TERE Gantxegi 2020/10/15

BETIRAKO GURE BIHOTZETAN
- ETXEKOAK -



Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Buhardilla saltzen da Bidebarrrieta 12an. Trasteak sartzeko egokia. 676102214.

1.2. Errentan

- Buhardilla alokagai Eibarko zentroan. Bikote edo pertsona bakarrarentzat oso egokia. Argitsua eta igogailuarekin. 651678454.
- Ama-alabek 2 logeleko etxea hartuko lukete alokairuan Jardiñeta inguruan. 627777468.
- 2-3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 664823992.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Gazteentzako lokala alokagai. 132 m2. Etxebizitarik gabeko eraikinean. Segurtasun-pertsianarekin. 656756485.
- Eibarren lokala alokatzen da. Negozio zein gazteentzat (baimen guztiekin). 634430647..

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakume euskalduna eta arduratsua eskaintzen da lanerako. Esperientzia dendari eta garbitzaile bezala. 649021380. Marta.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 679946934.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 631932322.
- Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. HH eta LH ikasketekin. 671459654.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko eta garbiketarak egiteko. 624869718.

- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko. Esperientzia eta Magisteritza ikasketekin. 648625209.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Interna. Esperientziarekin. 632029884.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. Externa. 643848513.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Disponibilitate guztiarekin. 632642320.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 622233171.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Disponibilitate guztiarekin. 602012075.

- Emakumea eskaintzen da goizez garbiketarak egiteko. 722499476.

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin) eta garbiketarak egiteko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. 604120104.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 678135914.

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, tabernan lan egiteko etab. 661718993.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 641421135.

4.2. Langile bila

- Elgoibarko mekanizazio-entresak langilea behar du Danobat RP1200 artezteko makinan (rektifikadora) lan egiteko. Esperientziarekin. Lan-kontratu mugagabea.. email: angel@swisslan.es

- Kamarera/o behar da Eibarko jatetxe batean. Bidalai curriculum Eibarko 331 postakutxatilara.

- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Esperientziarekin. 665308025. ionurion@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira: LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. Dohain arlo. 615708043.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Ponyak saltzen dira. 679824081.
- Bateria elektronikoa salgai. Millenium MPS-400. 658748823.
- Bi aulki elektriko salgai. Egoera oso onean. 660917919.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Kremaileeradun sudadera beltz handia aurkitu zen Sargardo Egunean. 943200918.



osasun gida

Okulistak

 **Recalde**
 Clínica Oftalmológica
 Oftalmologi Klinika

**-Kataraten kirurgian
 espezialistak.**

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2, 2º, Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com



Podologoak


**ELENA
 AIZPUN
 PODOLOGOA**
 838200124
 kolegiatu zerbakia

T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

Psikologoak



INIGO URANUE ARTECHE
www.inigournanue.com

- Merkataritza Taldeetako Aholkulari Sistemikoa
- Gestalt Terapeuta / Coach Ontologikoa
- Bokazio Orientatzailea

Unita Pasaia, 7
 472 682 133
info@inigournanue.com

Psikologia klinika eta
 Psikoterapia zentroa

 **Oscar Mondragon Lili**
 GOZIZ ESA ARRATSAKDEZ
Urkizu, 13 - beheak
 Tel: 943206823 / 686859023


**BIDEBARRIETA, 48
 EIBAR
 943 203050**

**ERDIKO KALE 54
 ARRASATE
 943 799746**

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
 Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
 Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

 **PSIKOTERAPIA ZENTRUA**

**HAUR, NERABE ETA
 HELDUENTZAKO
 PSIKOTERAPIA**

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com


PODOLOGOA

**Maidor
 Lopez
 Etxebarria**

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.



943-206776

ESKUBIDE ETA ALTERNATIBEN DOKUMENTAL EMANALDIAK

Krisien aurrean...
aldaketari ekiteko unea iritsi da

URRIAK
19

19:00. Portalea, Eibar

Doan

URRIAK
20

ExplotAPP

la precarización
al alcance de tu móvil



Zer dago etxez etxeko
banaketaren atzean?
¿Qué hay detrás del
reparto a domicilio?

Alternatibak plazara!



Gertuko aukerak bizitza
eta planeta zaintzeko
Opciones cercanas para
cuidar la vida y el planeta



@egoaizia
@PaizSoli_Eu
@mugarikgabe

Antolatzaileak



mugarik
gabe



EGOAIZIA



Elaboración alternativa
Ludoteca por y con niños

Ekaitzaileak

Gipuzkoako
Foru Alderdiak
Gipuzkoa Foru Alderdiak
Gipuzkoako Foru Alderdiak



Departamento Foral
de Gipuzkoa
Departamento Foral de Gipuzkoa
Departamento Foral de Gipuzkoa

